


FUNTSEZKO SOZIJETATEAK - ALIANTZAK ELKARTEAK

Hasteko beharrezkoa izango den hornitzaile nagusia inbiliaria bat da.

Gure proiektuak dioenez, bezeroa Cohousing-a egiteko prest egon behar da, eta kalitatezko pisu lasaiak behar ditugu. Horretarako, Casalist inbiliariaarekin harremanetan jarriko gara, hau da, Leioan kokatuta dagoen enpresa batekin. Haiek izango dira nagusientzako etxebizitza egokiak aurkituko dituztenak eta gure zerbitzua enpresa bitartekaria izango da.



Honekin batera, nagusientzako emergentzia zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bat kontratatuko dugu ere, berezitasunak dituzten aiton-amoneei laguntzeko behar duten guztiarekin. Horrela, nagusiek ez dute izango beraien etxetik ateratzeko beharra medikuarengana joan behar izaten dutenean, horren ordez, medikua haiengana joango da.

Gainera, inbiliaria batekin kolaboratzeaz gain, gure inguruan dauden hirien adin nagusien elkarteekin harremanetan jarriko gara. Beste era batera esanda, nagusientzako elkarteak gure bezero nagusiak ezagutzen dituzte beraz haiekin hitz eginez gero, gure enpresarako kontsumitzaileak aurki dezakegu, hots, bakarrik bizi diren pertsona nagusiak. Adibidez, Leioan kokatuta dagoen adin nagusientzako elkarteak, nagusi askok osatzen dute eta antza denez, erdia baino gehiago bakarrik bizi da.

Era beran, IMSERSO erakundearekin kontaktuan jarri ahal gara, gure bezeroentzat zuzenduta dagoen elkarten artean handienetako eta ospetsuenetako bat delako. Haiei esker, haien beharrei buruzko informazio gehiago lortuko dugu, guztiz inplikatzeko haien ongizatea lortzen eta gure proiektua haiei ezagutzera emateko ere aukera baliogarria ere izan daitekelako.



Laburbilduz, Leioa eta bere inguruko elkarte ezberdin batzuekin kontaktuan jarriko gara, gurekin kolaboratu dezaten eta gure aliantza bilakatu dezaten.

Beste elkarte eta enpresa batzuekin lankidetzan aritzea eta lan egitea garrantzitsua da gure elkarte indartzeko. Batetik, indarra eta boterea bateratzean, zerbitzu hobea eskaintzen diegu gure bezeroei, eta, beraz, gure zerbitzuaren kalitatea hobetzen dugu.

Bestalde, ikasteko eta irakasteko metodo bat da, non ezagutza partekatzen den. Gainera, beste enpresa batzuekin lan egitea beharrezkoa da proiektu hau aurrera eramateko, haien laguntzarik eta lanik gabe ezin izango bailitzateke zerbitzua eskaini.